

Erakutsi/Gorde

Garena erakutsi behar al dugu ala gorde? Ondo erakutsi duzuen moduan, Juanjo eta Katixa, gizarteak zehazki arautzen du arlo hau. Normaltasunean kokatzen gaituzten ezaugarriak —heterosexualitatea, zurtasuna, hizkuntza dominantea menperatzea, eta abar— erakusgarritzat jo ohi ditu gizarteak, eta hain zuzen ere zerbait normaltasunaren bidean jarri nahi duenean etengabe —hedabideen bitartez batez ere— erakutsiz normaltzen du gizarteak. Aitzitik, anormaltasunean kokatzen gaituzten ezaugarriak gorde behar izaten dira, ordena publikoa ez uhertzearen.

Araudi implizitu bezain simple honek izan dezake bere funtsean intentzio ona. Esaterako, laikotasunak suposatzen du desberdintzen gaituzten ikurrak espazio publikotik ezabatzea eremu pribatura mugatzeko. Horren abantaila zera litzateke, teorian inor ez dela baztertua sentitzen, ez baitu inork bere nortasun ezaugarriak besteei inposatzeko eskubiderik. Arazoa da, jakina, laikotasuna bera nortasun ikur bihurtzen dela oharkabea eta ustezko neutralitate horren izenean “beste” nortasun oro klandestinitatera kondenatzen dela. Desberdintasun sozialak sakondu baino egiten ez dituen sistema sasi egalitario honen aurrean, anormalitatea erakustea —espazio publikoan ozenki zabaltzea— izan da gutxiengo askoren jokatibidea. *Euskal prideak* menderik mende izan dituen deklinazio ugariak lekuko.

Baina nortasunaren erakusketa estrategikoki baliagarria dela ukatzea ezinezkoa bada, halaber ezin esan dezakegu ez dela une batetik aurrera kontraproduktiboa ere bihurtzen, eta apika etikoki eztabaidagarria. Esaterako, normaltasunetik egiten den erakusketa orok borondate jazarlea erakusten du, desbideraketa totalitarioa.



Zentzu horretan eta muturre-ra jota, ez dugu ahanzi behar gizarte totalitario askok erakusketa izan dutela arau bakar. Normaltasunaren erakusketa ikuskizun bihurtua —desfile naziak, sobietarrak, frankistak eta beste—, baina baita anormaltasunaren erakusketa bortxatuak. Erregimen totalitarioek betidanik erabili dute *outinga* jende anormala bere anormaltasuna agerian mantentzera behartuz —hala nola homosexualak hiruki larrosarekin, juduak izar horiarekin edo traidore politikoak buru soilduarekin—, eta exekuzioak, erreketak eta autodafeak herriko plazan egin ohi dira, agerian. Neurri ez hain tragikoan, gizarte puritanoak ere egiaren erakusketaren aldeko amorratuak izan ohi dira.

Alde horretatik begiratuta *Euskarari bai* bezalako kanpainak dudakor uzten naute. Irudika ezazue *Homosexualitateari bai* kanpaina bat, homosexualak beraien homosexualtasuna erakustera bultzatu eta *gay friendly* direnak publikoki sarituko lituzkeena? Nik ez daukat ezer euskara edo homosexualitatearen aurka, baina beharrezkoa al da, eroso al da, garenaren erakusketa sistematiko eta antolatua?

Ez da erraza, ikusten denez, oreka aurkitzea neurri berean bortxatuak izan daitezkeen klandestinitatearen eta erakusketaren artean. Intimitatearen erotismoa dastatu duenak badaki zein den bere gozotasuna. Nortasun gordeak badu abantailarik, erosotasunik. Tamalez, askotan behar-

tuta aurkitzen gara gure nortasuna exhibitzera, ezinbestean, bere biziraupena segurtatzeko bide bakarra delako. Anormalaren patua dateke.

Ez dakit Ttakun hauetan zenbateraino erakutsi dudan nor naizen... eta ez dizuet esango. Ondo jarraitu lagunok. ■

«
Euskarari bai bezalako kanpainak dudakor uzten naute.
Irudika ezazue Homosexualitateari bai kanpaina bat,
homosexualak beraien homosexualtasuna erakustera
bultzatu eta gay friendly direnak
publikoki sarituko lituzkeena?
»